



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2022ko abenduaren 12koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2022ko urriaren 24ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle agregatuaren plaza betetzeko (2022ko azaroaren 14ko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

*Lehena.*- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Lehiaketan Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

*Bigarrena.*- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2022ko abenduaren 12koa.

ERREKTOREA


Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko otailaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C  
FEDERICO  
RECART (R:  
Q4818001B)

Firmado digitalmente  
por 30628936C  
FEDERICO RECART (R:  
Q4818001B)  
Fecha: 2022.12.12  
09:57:31 +01'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano





Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:**

Plazaren zenbakia: 1. Kodea: AGVC6L1-D00212-2. Kategoria: Irakasle Agregatua (lotutakoa). Jakintza arloa: Psikiatria. Medikuntza Espezialitatea: Psikiatria. Saila: Neurozientziak. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Basurtuko Unibertsitate Ospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Psikiatria» eta «Gidaritzapeko Praktika Txandakatuak».

**ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:**

Izena eta deiturak: LUCIA INCHAUSTI LOPEZ DE LARRUCEA  
NAN: \*\*\*6927\*\*

**KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:** Bat ere ez